



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

# ESKOLA ETA CURRICULUMA

## Hezkuntzarako kanpo baliabideen azterketa



### II. Moduluko Diziplinarteko Lanaren ikaslearen gida

Lehen Hezkuntzako Gradua 1. maila  
(2025-2026 ikasturtea)

|                                                                                       |          |
|---------------------------------------------------------------------------------------|----------|
| <b>1. IRAKASLE-TALDEA .....</b>                                                       | <b>3</b> |
| <b>2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA .....</b>                                         | <b>3</b> |
| 2.1. <i>Edukien azalpen laburra .....</i>                                             | 4        |
| 2.2. <i>Lan taldeen osaera .....</i>                                                  | 4        |
| 2.3. <i>Kasua .....</i>                                                               | 4        |
| 2.4. <i>Eginbeharra .....</i>                                                         | 4        |
| <b>3. IKASKUNTZA-HELBURUAK .....</b>                                                  | <b>4</b> |
| <b>4. MODULUKO GAITASUNAK .....</b>                                                   | <b>4</b> |
| <b>5. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPZIOA .....</b>                                    | <b>5</b> |
| 5.1. <i>Lehen urratsa: lan taldeen osaketa eta kanpo baliabideen aukeraketa .....</i> | 5        |
| 5.2. <i>Bigarren urratsa: Kanpo baliabidearen esleipena .....</i>                     | 5        |
| 5.3. <i>Hirugarren urratsa: Bisita egin aurretik landu beharrekoa .....</i>           | 5        |
| 5.4. <i>Laugarren urratsa: Entregak eta behin-betiko lanaren egitura .....</i>        | 5        |
| <b>6. KRONOGRAMA .....</b>                                                            | <b>8</b> |
| <b>7. EBALUAZIOA .....</b>                                                            | <b>8</b> |
| <b>8. ERANSKINAK .....</b>                                                            | <b>9</b> |
| 8.1. <i>ERANSKINA. Hezkuntzaren Psikologiarako zehaztapen taula .....</i>             | 9        |
| 8.2. <i>ERANSKINA. Didaktika Orokorrerako zehaztapen taula .....</i>                  | 10       |
| 8.3. <i>ERANSKINA. Taldearen fitxa informatiboa .....</i>                             | 12       |
| 8.4. <i>ERANSKINA. DILAN-a ebaluatzeko errubrika .....</i>                            | 13       |


## 1. IRAKASLE-TALDEA

| Ikasgaia                               | Irakaslea                                                                | Helbide elektronikoa                                                                                                                | Bulegoa                    | Taldea               |
|----------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------|----------------------|
| Naturaren Zientziak LH-ko ikasgelan I  | Maialen Sistiaga<br>Ane Zabaleta                                         | maialen.sistiaga@ehu.eus<br>ane.zabaleta@ehu.eus                                                                                    | 3.14<br>3.10               | 31<br>32             |
| Gizarte-Zientziak eta bere Didaktika I | Amaia Lamikiz                                                            | amaia.lamikiz@ehu.eus                                                                                                               | 3.03                       | 31/32                |
| Hezkuntzaren Psikologia                | Iker Izar de la Fuente<br>Blanca Olalde                                  | iker.izardelafuente@ehu.eus<br>blancarosa.olalde@ehu.eus                                                                            | 2.10<br>2.05               | 31<br>32             |
| Didaktika Orokorra                     | Maitane Basasoro<br>Garazi Ormazabal<br>Lorea Fernández<br>Nerea Permach | maitane.basasoro@ehu.eus<br>garazi.ormazabal@ehu.eus<br>lorea.fernandez@ehu.eus (Moduluko koordinatzailea)<br>nerea.permach@ehu.eus | 2.09<br>2.3<br>OC1<br>3C34 | 31<br>31<br>32<br>32 |
| Matematika eta bere Didaktika I        | Maite Arraiza                                                            | maite.arraizaa@ehu.eus                                                                                                              | 3.12                       | 31/32                |

**OHAR GARRANTZITSUA:** Irakasleen tutoretza orduak GAUR-en kontsulta ditzakezue.

## 2. LAN MODULARRAREN TESTUINGURUA

Lehen Hezkuntzako "Eskola eta Curriculuma" moduluko diziplinarteko lan honek 2. lauhilabeteko 5 irakasgai hartzen ditu bere gain.



## 2.1. Edukien azalpen laburra

Moduluko diziplinarteko lanak harremanetan jarriko ditu irakasgai bakoitzean dauden edukiak, etapako ikaskuntzako oinarritzko printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) indarrean dagoen hezkuntza curriculum arauemailea, horiek guztiak lotuz Lehen Hezkuntzara bideratzen diren baliabide didaktikoetan dauden ikaskuntza proposamenekin.

## 2.2. Lan taldeen osaera

Lan-taldeak 5 pertsonakoak izango dira eta osaera ikasleek adostua izango da. Taldekatzeetarako honako irizpideak aintzat hartu daitezke: (1) eraginkortasun maila egoki bat lortzeko lagungarri izan daiteke giza- harremana edo lan-harremana egotea eta baita taldeko kideak elkarrengandik hurbil bizitzea ere; (2) laneko gaiarekiko dagoen interesak sor dezakeen kidetasuna eta (3) genero berdintasuna bermatzea.

## 2.3. Kasua

Derrigorrezko Hezkuntzak definitzen duen konpetentzietan oinarritutako curriculum aintzat hartuta, zentro bateko irakasle taldeak baliabide didaktiko berriak (interpretazio zentro edo museoak) bilatzea erabaki du eskolan lantzen den hori baliabide horietara bisitak eginez osatu ahal izateko.

Erabakiak hartu aurretik, kanpo baliabide didaktikoen inguruko informazioa biltzea erabaki dute. Horretarako, etapako oinarritzko jakintzak eta arloetako konpetentzia espezifikoak baliabide horietan duten egokitasuna balioetsi behar dituzte.

## 2.4. Eginbeharra

Zuen eginbeharra, ikastetxeko irakasle taldearen kide berri bezala kanpo baliabide didaktikoen hezkuntza eskaintza aztertzea eta baloratzea izango da eta txosten bat osatzea.

### *Galdera gidatzailea*

Hautatutako baliabide didaktikoaren eskaintza zehatzaren bitartez, zein oinarritzko jakintza eta konpetentzia espezifiko landu daitezke eskoletako ikaskuntza eta irakaskuntza aberasteko?

## 3. IKASKUNTZA-HELBURUAK

1. Lehen Hezkuntzan landu beharreko etapako oinarritzko jakintzak, funtsezko konpetentziak eta konpetentzia espezifikoak lortzeko baliagarri diren kanpo baliabideen hezkuntza eskaintzak ezagutzea.
2. Hautatutako Lehen Hezkuntzako zikloaren ikaskuntzaren oinarritzko printzipio batzuk ulertzea eta identifikatzea.
3. Informazioa bilatzea eta hau kudeatzeko teknikak erabiltzea.
4. Bakarka eta taldean etapa honetako curriculumeko arlo batzuen oinarriak ezagutzea eta aztertzea.

## 4. MODULUKO GAITASUNAK

**M1.** 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarritzko printzipioak aztertzea eta ulertzea.

**M2.** Taldeka idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa,

informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere.

**M3.** Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.

**M4.** Gaur egun lehen hezkuntza etapan erabilgarriak diren baliabide didaktikoak hautatu eta deskribatu, elkarlanean, curriculum osagaietatik abiatuz.

Lauhilabetekoa amaitzean, ikasleek Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoak aztertzen jakin beharko dute, gaur egun indarrean dagoen curriculum araudiarekin bat egiten duten neurtu ahal izateko, eta, hala dagokionean, hobekuntza aukerak proposatzea.

Ikasleek hobeto ezagutuko dituzte etapa eta curriculumaren oinarrian dauden oinarri psikopedagogikoak. Oinarrizko gaiei buruzko ikuspegi zabalago eta bateratzaileago bat eskuratzeaz gain, didaktika espezifikokoak ezagutzen hasiko dira, beren lanketa didaktikoa, curriculumetik eta arloen funts teorikotik abiatuz.

Baliabidearen egokitasuna balioesten eta argudiatzen jakingo dute, hautatutako zikloan jakintzaren sorkuntza nola sustatzen den irudikatuz, curriculumeko gomendio arautzaileak nolakoak diren, eta arloetarako aztertutako baliabide didaktikoek proposatzen dituzten oinarrizko jakintzak eta konpetentzia espezifikokoak egokiak diren aztertuz. Lan honek beraz, arlo desberdinetatik baliabideei buruzko azterketa eta hausnarketa eskatzen du.

## 5. EGIN BEHARREKO LANAREN DESKRIPIZIOA

### 5.1. Lehen urratsa: lan taldeen osaketa eta kanpo baliabideen aukeraketa

**Otsailaren 2rako** talde bakoitzak *Taldearen fitxa informatiboa* (8.4 eranskina) igoko du Egelara

### 5.2. Bigarren urratsa: Kanpo baliabidearen esleipena

Irakasle taldeak **kanpoko baliabide bat esleituko dio talde bakoitzari (otsailak 6)**. Hemendik aurrera lanari hasiera emango zaio. Data garrantzitsuak kronogramaren atalean zehazten dira.

### 5.3. Hirugarren urratsa: Bisita egin aurretik landu beharrekoa

Bisita egin aurretik garrantzitsua da gida hau bere osotasunean irakurtzea eta arreta berezia jartzea bisitatik lortu beharreko informazioa zein den identifikatzea. Hortaz, komenigarria da gida irakurri eta bisitan zehar jaso beharreko informazioaren zerrenda bat egitea. Baita Curriculumean dagozkion eremuen atalean bisitari dagokion zikloaren inguruko konpetentzia eta jakintzak irakurtzea.

### 5.4. Laugarren urratsa: Entregak eta behin-betiko lanaren egitura

Amaierako lanak jarraian proposatzen den egitura izango du eta bere luzerak ez ditu 15 orrialde gaindituko (portada, aurkibidea eta erreferentziak kenduta). Orrialdeak zenbakituta joango dira (portada kenduta). Hizki tamaina Times New Roman 11 eta lerroarte 1,15 izango delarik.

## 0. PORTADA

Baliabidearen izena eta argazkia; Ikas taldea (LH31 edo LH32); Taldearen eta taldekideen izenak; Deialdia eta tutorearen izen abizenak azalduz.

## 1. AURKIBIDEA

Sarrera; Kanpo baliabidearen deskripzioa; Jarduera zehatzaren analisia; Ondorioak; Erreferentziak eta Eranskinak atalak

izan behar ditu.

## **2. SARRERA**

Atal hau lanaren laburpen bat izango da eta beste atalak bukatutzat ematen direnean betetzea gomendatzen da (400-500 hitz gehienez).

## **3. KANPOKO BALIABIDEAREN DESKRIPZIOA**

Kanpo baliabideari buruz jaso dezakezuen informazioa kontutan hartuta talde bakoitzak baliabidearen deskripzioa egin beharko du gehienez 200 hitz erabilita **(1. entrega, otsailak 20)**. Deskripzioa egiteko, galdera hauen erantzunak jaso behar da:

- Non dago kokatuta?
- Zein da baliabideak duen hezkuntza eskaintza zehatza eta nori zuzentzen zaio? (arreta berezia eskaini galdera hau erantzuteari)
- Zein datetan egingo da bisita? LHko zein mailatako ikasleekin?
- Bisitan egin beharreko behaketaren check-lista.

## **4. PROPOSAMEN ZEHATZAREN ANALISIA (2. entrega, apirilak 1)**

Lanaren helburua kanpoko baliabideak eskaintzen duen tailer edo proposamen zehatz baten azterketa izango da. Helburua moduluko irakasgaiak nola integratzen diren ikustea denez, didaktika espezifikoetako irakasgaien kasuan, LHko Matematika eta Natura, Gizarte eta Kultura ingurunearen ezagutza arloen konpetentzia espezifikoak eta oinarritzko jakintzak garatzen nola laguntzen duten deskribatuko da. Didaktika Orokorra eta Hezkuntzaren Psikologiako arloak zeharkakoak badira ere, 8.2 eta 8.3. eranskinetan dauden jarraibideak aintzat hartuz tailer zehatz horretan nola egiten den behatuko da.

Txostena gauzatzeko kanpoko baliabide horretara bisita egitea beharrezkoa da eta bisitan zehar ebidentziak eskuratzea: argazkiak, txostenak, lanak, egindako galdera/erantzunen transkripzioak, etab. Aldi berean eta informazioa osatzeko bertako arduradun pedagogikoarekin edo gidarekin eta ikasle taldearen irakaslearekin hitz egitea komenigarria da, bisitaren zergatia, eskolan lantzen ari direnarekin lotura, etab. ezagutzeko eta lana ondo burutzeko.

### *Hezkuntzaren Psikologia eta Didaktika Orokorra*

8.2 eta 8.3. eranskinetan azaltzen diren adierazleak jarraituz, kanpoko baliabideak eskaintzen duen tailer zehatz horretan egiten den/diren jarduera(ei) buruzko informazioa jasoko da *Hezkuntzaren Psikologia* eta *Didaktika Orokorren* ikuspegietatik, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak azpimarratuz eta jardueraren analisia bideratuz.

### *Naturaren zientziak LH-ko ikasgelan I eta Gizarte zientziak eta bere didaktika I*

Lehen Hezkuntzako Graduan ematen diren “Naturaren Zientziak LH-ko Ikasgelan I” eta “Gizarte Zientziak eta bere Didaktika I” ikasgaietan egin beharreko lana zera da, kanpoko baliabideak Lehen Hezkuntzako curriculumean jasotako “Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza” arloa garatzeko ematen dituen aukerak aztertzea. Horretarako, kontuan harturik zein ziklotara bideratuta dagoen, tailerrak zein konpetentzia espezifikoei eta dagokion zikloko

oinarrizko jakintzei egiten dien ekarpena deskribatu behar da, Natura zein Gizarte Zientzien jakintza arloetatik eta, beti ere, modu egokian justifikatuz, hau da, adibideak edo ebidentziak erakutsiz.

Lan hau egiteko, curriculuma erabiliko da abiapuntu gisa, baina baita Graduiko ikasgai hauetan Gizarte eta Natur Zientzien Didaktikaren oinarri eta funtsei buruz landutako edukiak ere.

Hurrengo galdera hauek baliagarriak izan daitezke analisi hori burutzeko:

- Lehen Hezkuntzako “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” arloan landu behar diren konpetentzia espezifiketatik zeintzuk jorratzen dira aukeratutako tailerrean? Konpetentziaren zein alderdi lantzen den zehazki aipatu.
- Aukeratutako tailerrean zein oinarrizko jakintzak jorratzen ditu Natura Zientzien eta Gizarte Zientzien alorrean? (zehaztu multzoa eta oinarrizko jakintza espezifikoa ahal den neurrian, besterik lantzen bada ere aipatu).

### *Matematika eta bere didaktika I*

Kanpo baliabideak eskaintzen duen tailer hori aztertu beharko da: diziplinartekotasunaren ikuspegia bistatik kendu gabe, baita matematika arloaren konpetentzia espezifikoen eta oinarrizko jakintzen ikuspegi berezitik ere. Konpetentzia espezifiko horiek matematikan estandarrak diren bi iturri curricular hauetatik atera beharko dira: a) Curriculum berria, eta b) NCTM-ren “Principles and Standards for School Mathematics” .

Hona hemen argibide bideratzailea: arreta berezia jarri “arrazoibide matematikoa” lantzeko egokiak diren alderdietan, alor hori baita irakasgai bereziki lantzen den blokea.

## 5. ONDORIOAK

Kanpoko baliabideak eskaintzen duen tailerra kontutan hartuta, ondorioak atera hiru puntu hauei erreparatuz eta zuen eskolarentzako baliabidea egokia den edo ez justifikatuz:

Interesgarria da eskolako irakaslearekin testuingurua zehaztea eta jakitea zergatik eta zertarako etorri diren eskolatik tailer hori egitera. Hori zehaztu ondoren, ondorioak hiru alderdi hauek inguruan garatu. **Oharra:** bisita egunerako hau aintzat hartu behar duzue.

- Jardueraren egokitasuna (adina, erabilitako euskarriak, material eguneratua, materialaren alderdi estetikoak, irisgarritasuna, etab.)
- Diziplinartekotasunaren bermea
- Agenda 2030, Garapen Iraunkorrerako Helburuen (GIH) eta hezkuntza ekosozialaren lanketaren adibideren bat identifikatu edo proposatu.



## 6. ERREFERENTZIAK

[APA 7. edizioen arabera](#)

## 6. KRONOGRAMA

| ATAZA                                                               | DATA                           | NON   | FORMATUA |
|---------------------------------------------------------------------|--------------------------------|-------|----------|
| DILAN aurkezpena                                                    | Urtarrilak 27 (31/32 taldetan) |       |          |
| Gida irakurri eta talde fitxa bidali                                | Otsailak 2                     | Egela | PDF      |
| Tutore eta kanpo baliabidearen esleipena                            | Otsailak 6                     |       |          |
| Kanpo baliabidetik aukeratutako jarduera zehatza bisitatzeko tartea | Otsailak 20-Martxoak 27        |       |          |
| Kanpoko baliabidearen deskribapen orokorra (1. entrega)             | Otsailak 20                    | Egela | WORD     |
| Aukeratutako jarduera zehatzaren deskribapena (2. entrega)          | Apirilak 1*                    | Egela | WORD     |
| Tutorearen feedbackerako tartea                                     | Apirilak 20-24                 |       |          |
| Behin betiko entrega                                                | Maiatzak 8                     | Egela | PDF      |

## 7. EBALUAZIOA

Modulu-lanaren kalifikazioa irakasgai bakoitzeko kalifikazioaren %20 izango da. Koebaluazio galdetegi bat egingo da eta galdetegian elkarri ematen zaion puntuazioa azken kalifikazioan eragina izango du. Prozesua ebaluatzeko tutorearekin jarraipen bilerak egingo dira eta derrigorrezkoak dira taldekide guztientzat. Kalifikazioa 8.5 eranskineko ebaluazio-errubrikan dauden irizpideei jarraituz egingo da. Lehen deialdian gaintitzen ez duten ikasleek 2. deialdian gaintitu beharko dute (ez-ohiko deialdiko lehen azterketa egunerako), behar diren hobekuntzak eta zuzenketak txertatuz.

Plagioa detektatzen bada edo horren susmoa badago, UPV/EHuren protokoloa aplikatuko da (<https://labur.eus/jrdG7>).

Horrek 0 puntuko kalifikazioa ekarriko luke jarduera edo lan akademikoen azken bertsioan; beraz, gomendatzen da esteka honen jarraibideak hasieratik jarraitzea plagioa saihesteko eta zintzotasun akademikoa betetzeko:

<https://labur.eus/uZjfo>

Bestetik, oso garrantzitsua da irudiak, taulak eta erabilitako informazio iturriak behar bezala aipatzea eta erreferentziatzea. Horretarako, esteka hauetan agertzen diren APA estiloaren (7. edizioa) adibide zehatzak kontsultatzea gomendatzen da: <https://labur.eus/1F1U0> eta <http://hdl.handle.net/10810/42398>

Halaber, adimen artifizialaren (itzultzaileak barne) erabilera aitortzea beharrezkoa da honako irizpide hauek erabiliz: <https://labur.eus/LLDhk>.

Azkenik, hizkuntzari dagokionez, gramatika, adierazpena edo ortografia akats posibleak berrikustea, eta hizkuntza inklusiboaren eta ez diskriminatzailearen erabilera babestea garrantzitsua da ere (hauek egokitasun faltak lana ez gaintitzeko arrazoia izan daiteke). Gida hurrengo estekan eskura daiteke: <https://labur.eus/Sxj8Y>

## 8. ERANSKINAK

### 8.1. ERANSKINA. Hezkuntzaren Psikologiarako zehaztapen taula

#### Hezkuntzaren Psikologia

Hezkuntzaren Psikologiaren atalaren helburua hurrengoa da: hezkuntzarako kanpo baliabide batean eskaintzen diren ekintza, tailer edo jarduera didaktikoetatik bat hautatzea eta ikuspegi konstruktibistatik aztertzea. Horrela, ikasleek teoria konstruktibistaren oinarriak praktikan ikusteko aukera izango dute, irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua hobeto ulertuz eta barneratuz.

#### **Teoria konstruktibisten aplikazioaren analisisa eta hobekuntza proposamenak**

Aukeratutako jarduera didaktikoa ikuspegi konstruktibistatik analizatzeko aztertu zein neurritan sustatzen dituen konstruktibismoaren oinarriak hurrengo egileen ikuspegiak eta ekarpenak aintzat hartuz:

##### *Jean Piaget*

Klasean egilearen inguruan landutako edukiak erabili beharko dira (ezagutza eraikitzea, esperimentazioa, garapen kognitiboaren mailak, eskemak, gatazka kognitiboa, etab.).

##### *Lev Vygotsky:*

Klasean egilearen inguruan landutako edukiak erabili beharko dira (garapen hurbileko eremua, funtzio bikoitzaren legea, aldamiagea, hizkuntzaren rola, elkarlanaren garrantzia, etab.).

##### *Jerome Bruner:*

Klasean egilearen inguruan landutako edukiak erabili beharko dira (aurkikuntza bidezko ikaskuntza; espiralaren eredua; irudikapen erak/etapak -enaktiboa, ikonikoa eta sinbolikoa-, etab.).

##### *David Ausubel:*

Klasean egilearen inguruan landutako edukiak erabili beharko dira (aurretiazko ezagutzen aktibazioa, antolaketa kontzeptuala, ikaskuntza esanguratsua, etab.).

Bisitatu diren kanpo baliabideak, orokorrean, planteamendu konstruktibistetan oinarrituta egongo dira, baina beti hobekuntzak egin daitezke. Hori dela eta, aztertutako ekintzan garrantzitsuak diren eta bermatu ez diren egile ezberdinek proposatu dituzten planteamenduak hobekuntza proposamen moduan txertatu beharko dira. Hau da, garrantzitsuak diren planteamenduak martxan jarri ez direnean, horiekin bat egiteko jarduera nola egokituko zen azaldu beharko da.

Behin analisisa eta hobekuntza proposamenak garatuta, amaieran, paragrafo batean aztertutako jarduera konstruktibista den edo ez ondorioztatu beharko da, aldeko eta kontrako argumentuak erabiliz.

Atal honen formatuari dagokionez, testu ordenatu, kohesionatu eta integratu bat bermatu behar da, egileen araberrako azpiatalen bereizketa saihestuz. Luzerari dagokionez 1.5-2 orrialde garatu beharko dira.

## 8.2. ERANSKINA. Didaktika Orokorrerako zehaztaperen taula

### Didaktika Orokorra

| TAULA 1     | DIMENTSIOAK                         | GALDERA ERAGILEA                          | ADIERAZLEAK                                                     |
|-------------|-------------------------------------|-------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------|
| METODOLOGIA | Jarduerak                           | Nolako jarduerak proposatzen dira?        | Erantzun bakarra edo irekia dutenak                             |
|             |                                     |                                           | Askeak edo gidatuak                                             |
|             |                                     |                                           | Sekuentzietan antolatuak (metodo jakin bat) edo antolatu gabeak |
|             |                                     |                                           | Pasiboki edo aktiboki parte hartu beharrekoak                   |
|             | Espazioaren Antolakuntza            | Nola antolatzen da espazioa?              | Aurrez prestatuta edo ez                                        |
|             | Tailerraren Denboraren Antolakuntza | Nola antolatzen da denbora?               | Ordutegi itxia eta zurruna                                      |
|             |                                     |                                           | Ordutegi erdi-egituratua                                        |
|             |                                     |                                           | Ordutegi malgua eta moldakorra                                  |
|             | Taldekatzeari                       | Nola antolatzen dira ikasleak?            | Taldeak [txikian, handian, etab.]                               |
|             |                                     |                                           | Banaka                                                          |
|             |                                     |                                           | Egonkorra edo aldakorra                                         |
|             | Baliabide Materialak                | Zer baliabide materialak erabiltzen dira? | Material manipulatioa                                           |
|             |                                     |                                           | Material audiobisuala                                           |
|             |                                     |                                           | Paperezko materiala                                             |

| TAULA 2                                    | DIMENTSIOAK          | GALDERA ERAGILEA                                        | ADIERAZLEAK                                        |
|--------------------------------------------|----------------------|---------------------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| <b>EBALUAZIOA</b><br>(Tailerraren itxiera) | Teknikak eta tresnak | Zeintzuk dira erabiltzen diren ebaluazio instrumentuak? | Galdetegiak, solasaldia edo eztabaidak             |
|                                            |                      |                                                         | Behaketa                                           |
|                                            |                      |                                                         | Elkarriketa                                        |
|                                            | Irizpideak           | Zer ebaluatzen da?                                      | Jarrerak                                           |
|                                            |                      |                                                         | Prozedurak                                         |
|                                            |                      |                                                         | Ezagutza deklaratioak (jakintzak)                  |
|                                            | Egileak              | Nork ebaluatzen du?                                     | Autoebaluazioa, kohebaluazioa eta heteroebaluazioa |

### 8.3. ERANSKINA. Taldearen fitxa informatiboa

|                                                                                                                                                                                                                                   |                              |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|
| <b>KODEA:     // ETA TALDEAREN IZENA:</b><br><br><b>HARREMANETARAKO KORREOA:</b>                                                                                                                                                  |                              |
| <b>TALDEKIDEEN IZEN-ABIZENAK</b>                                                                                                                                                                                                  | <b>HELBIDE ELEKTRONIKOAK</b> |
| 1.                                                                                                                                                                                                                                | 1.                           |
| 2.                                                                                                                                                                                                                                | 2.                           |
| 3.                                                                                                                                                                                                                                | 3.                           |
| 4.                                                                                                                                                                                                                                | 4.                           |
| 5.                                                                                                                                                                                                                                | 5.                           |
| <b>ARDURAK ETA ARDURADUNAK</b><br><br>Koordinatzailea eta entregak gauzatzea:<br><br>Bozeramailea Idazkaria:<br><br>Ebidentziak eta materiala:<br><br>Baliabidearekin harremana:<br><br>Hizkuntza zuzentasuna:<br><br>Maketazioa: |                              |
| <b>TALDE ARAUAK</b>                                                                                                                                                                                                               |                              |

#### 8.4. ERANSKINA. DILAN-a ebaluatzeko errubrika

|                    | Hobekuntza daiteke (0-4.9)                                                                                                                                                                                                                | Nahikoa (5-6.9)                                                                                                                                                                            | Oso ondo (7-8.9)                                                                                                                                               | Bikain (9-10)                                                                                                                                                                                           |
|--------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Moduluko gaitasuna | M1. 6-12 urte bitarteko etapan (Lehen Hezkuntzan) ikaskuntza-irakaskuntza oinarriko printzipioak aztertzea eta ulertzea.                                                                                                                  |                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                         |
|                    | Ez ditu eduki eta termino asko erabiltzen eta garrantzitsuak direnak ezta ere. Kontzeptuak modu isolatuan aurkezte dira. Hausnarketak sinpleak dira eta justifikazioa falta zaie.                                                         | Hainbat eduki eta termino biltzen ditu, baina batzuk ez dira garrantzitsuak. Kontzeptuak modu erraz batean erlazionatzen dira. Hausnarketak egokiak dira baina hobeto justifikatu litezke. | Eduki eta termino dezente biltzen ditu eta garrantzitsuak dira gehienak. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira eta egoki justifikatuta dago hausnarketa. | Eduki eta termino ugari biltzen ditu eta garrantzitsuak dira. Kontzeptuak modu landuan erlazionatzen dira eta hausnarketak heldutasun maila haundia erakusten du behar bezala justifikatuta dagoelarik. |
| Moduluko gaitasuna | M2. Taldea idatzizko txosten bat egitea Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen azterketa eta balorazioari buruzkoa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz, baita hizkuntza eta komunikazio konpetentziak erabiliz ere. |                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                         |
|                    | Idazkeran 4 akats morfosintaktikotik gora daude eta txostenaren formatua ez da gidan zehazten denaren arabera egin.                                                                                                                       | Idazkeran 3-4 akats morfosintaktiko daude eta txostenaren formatuan akats txikiak daude.                                                                                                   | Idazkeran 1-2 akats morfosintaktikotik daude eta txostenaren formatua egokia da.                                                                               | Idazkeran ez dago akats eta txostenaren formatua egokia da.                                                                                                                                             |
| Moduluko gaitasuna | M3. Ikasle talde batean modu aktiboan parte hartzea, zereginak eta erantzukizunak bere gain hartuz, modu kooperatibo, autonomo eta eraginkorrean lan egiten ikasteko.                                                                     |                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                |                                                                                                                                                                                                         |
|                    | Eskatutako zereginak ez dira garaiz entregatu, eta taldeak ezarritako datak atzeratzen ditu. Egindako lana eskasa da talde-giroa ez delako egon ezta lanarekiko interesik ere.                                                            | Entrega bat ez da garaiz entregatu eta ez du taldearen plangintzan ondorioz izan. Egindako lana nahikoa da talde-giroa minimoa eta lanarekiko interes minimo bat egon delako.              | Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza egon da. Egindako lana egokia da talde-giroa eta lanarekiko interesa egon delako.               | Entrega guztiak garaiz entregatu dira eta taldearen plangintza garbia egon dela ikusi da. Egindako lana bikaina da talde-giroa eta lanarekiko interesa eta kezka ikusi delako.                          |

|                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|--------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Moduluko gaitasuna | M4. Gaur egun lehen hezkuntza etapan erabilgarriak diren baliabide didaktikoak hautatu eta deskribatu, elkarlanean, curriculum osagaietatik abiatuz (helburuak, konpetentziak, oinarritzko jakintzak eta ebaluazioa)                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|                    | <p>Curriculumaren osagai batzuen deskripzioak falta dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” eta matematika arloko konpetentzia espezifikoak eta oinarritzko jakintzak ez dira identifikatzen, edota identifikazioa ez da egokia, edota identifikatzen badira, ez dira justifikatzen.</p> <p>Eta ez dira desberdindu Natur Zientziekin eta Gizarte Zientziekin dituzten loturak.</p> <p>Natur Zientziak zein Gizarte Zientziak eta matematika lantzeko baliabidearen proposamena ez da modu egokian aztertzen.</p> | <p>Curriculumaren lau osagai hauteman dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” eta matematika arloko konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintzak batzuk ez dira egoki identifikatzen edota horien justifikazioa ez da beti egokia.</p> <p>edota Natur Zientziekin zein Gizarte Zientziekin eta matematikarekin dituzten loturak ez dira beti desberdindu.</p> <p>Natur Zientziak zein Gizarte Zientziak eta matematika lantzeko baliabidearen proposamena erdizka aztertzen da.</p> | <p>Curriculumaren osagaiak hauteman eta ezaugarriak zehatz deskribatzen dira.</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” eta matematika arloko konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira baina horien justifikazioa osatu daiteke</p> <p>edo Natur Zientziekin zein Gizarte Zientziekin eta matematikarekin dituzten loturak ez dira beti desberdindu.</p> <p>Natur Zientziak zein Gizarte Zientziak lantzeko baliabidearen proposamena modu egokian aztertzen da.</p> | <p>Curriculum osagaien arteko korrespondentzia analizatzen iritsi dira (koherentzia baliabide didaktikoaren barnean)</p> <p>Baliabidearen bitartez landu daitezken “Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza” eta matematika arloko konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza gehienak edo guztiak egoki identifikatzen dira eta horien justifikazioa egokia da.</p> <p>Natur Zientziei zein Gizarte Zientziei lotutakoak desberdindu.</p> <p>Natur Zientziak zein Gizarte Zientziak eta matematika lantzeko baliabidearen proposamena modu egokian aztertzen da.</p> |